

778. AUTODETERMINATU GINEN

Noain (2004.6.27)

Komunikabide ezberdinak irakurriz, ikusiz edo entzunez, gauza batez ohartu naiz, denek dutela guri zerbait esateko:

Inperialistek esaten digute demokrazian bizi garela, baina egia euren interesen menpe bizi garela da, inposaketa hutsean.

Inperialistek esaten digute ere, biolentzia armatua ez dela bidea helburu politikoak lortzeko, baina egia gure estatua indarkeriaz kendu zigutela da eta euren ejerzitua gure lurretan mantentzen dutela, herri honen bere askatasunaren aldeko manifestapen guztiak suntsitzeko prest.

Badira esaten digutenak estaturik ez duen nazio bat garela, baina egia guk aspaldi gure estatua dugula da, okupatua dagoela da gakoa.

Beste horiek, esaten digute ere, euskaldunok autodeterminazio eskubidea dugula, baina egia gu aspaldi autodeterminatu ginela da, orreagan karlomagnoren kontra eta eneko aritzarekin: Nabarrako estatua sortu genuenean. Gure estatua konkistatu ondoren, autodeterminatzeko herri honek eginiko ahalegin guztiak, inperialistek, armen bidez zanpatu dituztela da egia.

Guztiak esaten digute antolatzen dituzten hauteskunde ezberdinetan parte hartu behar dugula..., baina zelan parte hartuko dugu espainia eta frantziak egiten dituzten hauteskundeetan, eurekin nabarrako konkista, gure nazioaren eliminazioa, lurralde banaketa eta gaur arteko okupazio militarra legitimatu nahi dutenean?

Denek dute guri zerbait esateko, baina guk zer dugu esateko?

Guk hau diogu:

NABARRA DEN GURE ESTATUA KOMUNIKABIDEETAN IRAKURRI, IKUSI ETA ENTZUN ARTE EZ DUGULA ETZIKO:

NABARRAREKIN IZANGO BAITUGU DEMOKRAZIA,

GURE NAZIOA ETA IZAERA BERMATUA,

ESKUBIDE GUZTIAK,

ORDUAN IZANGO DITUGU HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOAK,

ORDUAN BAKARRIK HERRI LEZ LIBRE IZANGO GARA BERRIRO ERE.